

[Animalien Osasunari buruzko Europako Araudi berria 16/03/23](#)

Joan den astean, behin betiko onetsi zuten [Animalia Osasunari buruzko Europako Araudi berriaren proposamena](#). Europako Kontseiluak erabakia berretsi du, eta araudia **2016ko apirilean argitaratuko da**.

Orain arte Animalien Osasunari buruzko Legea deiturikoa Animalia Gaixotasun Transmitigarriei buruzko Araudi berria izango da aurrerantzean.

Hemendik aurrera, araudi hori animalien osasunari buruzko politikaren Europako esparrua izango da, eta araudiaren xedapenak nahitaez bete beharko dira EB osoan; gainera, betearazpen-egintzak gauzatzeko gutxieneko baldintzak ezarriko dira. Bost urteko epea egongo da araudira egokitzeko, eta **2021. urtetik aurrera aplikatuko da**.

Araudi berriak aldatu eta indargabetu egiten ditu animalien osasunaren arloko Europako zenbait arau, eta Animalien Osasunerako Estrategia (2007-2013) ezartzeko tresna nagusia izango da: "Hobe da prebenitzea, sendatzea baino".

Europako Batzordeak [araudi berria aurkeztu zuen](#). Besteak beste, honako alderdi hauek jasotzen ditu:

- Arduradunen, operadoreen, albaitarien, autoritate eskudunen eta abarren **ardurak**.
- **Arrisku-analisian** oinarrituriko ikuspegia izatea, gaixotasunak lehenesteko eta sailkatzeko modua barne hartuta.
- Garrantzi handiagoa ematea **prebentzioari** (biosegurtasuna, zaintza, animalien osasunari buruzko ezagutza hobea, txertoen erabilera...).
- **Konbergentzia** handiagoa izatea animalia-osasunari buruzko nazioarteko arauekin (**OIE**).
- **Gaixotasun emergentei** erantzun hobea ematea.
- **Animalien osasunak, animalien ongizateak eta osasun publikoak** elkarrekin duten loturaren gaineko kontzientzia hartzea.
- **Albaitaritzako sendagaiak** neurritz eta arduraz erabiltzea.
- Animaliak dauden **establezimendu guztiak** nahitaez **erregistratzea** (estatuek erabakitako salbuespen batzuekin).

Informazio gehiago:

[EBren webgunea](#): Animalia Gaixotasun Transmitigarriei buruzko Araudi berria - Europako Batzordea, 2016ko martxoa

[Kronologia eta analisia](#): Animalia Gaixotasun Transmitigarriei buruzko Araudiaren proposamena - Europako Parlamentua, 2016ko martxoa

[Mingain urdinaren gaixotasunari buruzko](#)

[berriak Frantzia 16/03/22](#)

Frantziak **mingain urdin gaixotasunaren 8 serotipoaren foku bat jakinarazi zuen martxoaren 18an**. Espainiarekin muga egiten duen Ariège departamenduan detektatu zuten.

177 behi-buru dituen ustiategi batean aurkitu zen, eta horietako batek PCR erreakzioan positiboa eman zuen esportaziorako kontrol batean, aurretik inolako sintoma klinikorik izan gabe.

2015eko irailaren 11n, ANSESeko erreferentziazko laborategi nazionalak baieztatu egin zuen mingain urdin gaixotasunaren 8 serotipoaren lehenengo fokua; harrezkero, **223 foku detektatu dira Frantzia**.

Hortaz, Frantziak 150 km handitu du fokua inguruko murrizte-eremua.

- [Kaltetutako eremuen mapa Frantzia](#), 2016/03/18an (alim´agri).

Espainiako egoera

Joan den urtarrilean, prebentzio-txertaketaren eremua ezarri zen Espainian, Frantzia kaltetutako departamenduarekin mugan dauden eskualdeetan.

Frantzia, 2015eko udazkenean asko hedatu zen gaixotasuna, eta, horren ondorioz, **8 serotipoaren kontrako prebentzio-txertaketaren eremua ezarri zen**, Frantziarekin mugatik 100 km-ko inguruan, mugakide diren autonomia-erkidegoek eta MAGRAMAk hala erabakita.

Prebentzioko txertaketa hori otsailaren 2ko [AAA/107/2016](#) Aginduaren bidez ezarri zen. Txertaketa normal-normal gauzatzen ari da, eta ziur asko hurrengo hilabeteetan amaituko da.

Informazio gehiago:

[Albaitaritzako Osasun Alerten Sarearen \(RASVE\) albiste](#), MAGRAMA, 2016/03/21

[ELIKAre albiste: txertaketa](#) - ELIKA, 2016/02/09

[Mingain urdin gaixotasunaren inguruko galderak eta erantzunak](#) - Frantziako Nekazaritza Ministerioa (alim´agri), 2016/03/21

[2016ko otsailaren 25eko Dekretua](#). Horren bidez aldarazi egiten da 2011ko uztailaren 22ko Agindua, Frantziako metropoli-eremuan mingain urdinaren gaixotasunari aurre egiteko neurri tekniko eta administratiboak ezartzen dituen.

[Mingain urdinaren gaixotasunari buruzko informazioa Europan](#) - EB, 2016/03/14

[Azken orduko egoera: HGaren Frantziako fokuak 16/03/22](#)

Gaur arte egoerak berdin jarraitzen du fokuen jakinaraziar dagokionez, Frantziako Nekazaritza Ministerioak esandakoagatik: **patogenotasun handiko hegazti-gripearen (PHHP) 76 agerraldi berretsi dira Frantziako 8 hego-mendebaldean**.

Azken agerraldia **martxoaren 15ean** izan da, Landako departamentuan, 800 ugaltze-ahateko baserri batean.

[Europako Batzordeak gaixotasunaren datuak](#) aurkeztu zituen hegaztiengan :

- 2015/04: **Koreako eta Japoniako jatorrizko H5N8. (Alemania, Holanda, Erresuma Batua, Italia eta Hungaria). Basa hegaztiekin** harremanetan daude.
- 2015/02: **Bulgarian eta Errumanian basa hegaztiengako** Asiatik datorren **H5N1**.
- 2015/07: **H7N7 - Alemania eta Erresuma Batua**. Bere jatorriari buruzko ikerketarik ez dago, bera izan dadila ez dirudi, mutazio bat izango litzateke.
- **Frantziako IA** - 2015/11: **H5N1** hainbat birusekin, **H5N2**-ekin eta **H5N9**-ekin. Teorian birus-mutazio produktu dira.

Elikagai Segurtasunerako Frantziako Agentziak ([ANSES](#)) [irizpen bat eman zuen abenduaren 14an](#), identifikaturiko anduiak gizakiei eragin diezaieken arriskuari buruz, eta Dordoinan detektaturiko H5N1 anduiaren sekuentziazio osoaren emaitzak jaso zituen bertan. Irizpen horrek berretsi egiten du ez dagoela gizakientzako arrisku larriko markatzailerik.

Beste alde batetik, lege-betekizunak ezarri dira **bi Dekretuen** argitaralpenarekin:

- [2016ko otsailaren 8ko dekretua](#), eskorta-hegazti ustiapenetako **biosegurtasun-neurri** aplikagarrien eta hegazti-gripearen aurkako prebentzioaren testuinguruko beste hegazti batzuen gainean.
- [2016ko otsailaren 9ko dekretua](#), Frantziako lurraldeko gaixotasunaren (**murrizketa-zona establezimendua**) detekzioaren ondoren hegazti-gripearen kontrako erabakia.

Aurreneko fokua 2015eko **azaroaren 24an berretsi zen: patogenotasun handiko hegazti-gripea (PHHP), H5N1** azpimota, jatorri europarra. **EZ DU ZERIKUSIRIK 90eko hamarkadaren erdialdeko AZPIMOTA ASIARRAREKIN** (2005ean iritsi zen Europara). Hauek izan dira detektaturiko gainerako azpimotak: H5N1, H5N2 eta H5N9.

Informazio interesgarria:

[Frantziako Nekazaritzaren, Nekazaritzako Elikagaien eta Basoaren arloko Ministerioa - 16/03/18 ANSES](#), Elikagai Segurtasunerako Frantziako Agentzia.
[HGren Frantziako fokuari buruzko aurreko albistea](#) - 16/03/14, ELIKA

[**Azken orduko egoera: HGaren Frantziako fokiak 16/03/14**](#)

Gaur arte egoerak berdin jarraitzen du fokuen jakinaraziari dagokionez, Frantziako Nekazaritza Ministerioak esandakoagatik: **patogenotasun handiko hegazti-gripearen (PHHP) 75 agerraldi berretsi dira Frantziako 8 hego-mendebaldean.**

- [FRANTZIAKO PATOGENOTASUN HANDIKO HEGAZTI-GRIPEAREN EGOERA](#) - MAGRAMA,

16/02/16

Azken agerraldia urtarrilaren 4an izan zan, Landako departamentuan.

Eragina nabaritu duten Frantziako departamenduak:

- **Dordoina: 15 foku.**
- **Gers: 10 foku.**
- **Haute Vienne: foku 1.**
- **Landak: 30 foku.**
- **Pirinio Garaiak: 3 foku.**
- **Pirinio Atlantikoak: 13 foku.**
- **Lot: foku 2.**
- **Garonne: foku 1.**

Elikagai Segurtasunerako Frantziako Agentziak ([ANSES](#)) irizpen bat eman zuen abenduaren 14an, identifikaturiko anduiak gizakiei eragin diezaieken arriskuari buruz, eta Dordoinan detektaturiko H5N1 anduiaren sekuentziazio osoaren emaitzak jaso zituen bertan. Irizpen horrek berretsi egiten du ez dagoela gizakientzako arrisku larriko markatzailerik.

Beste alde batetik, lege-betekizunak ezarri dira **bi Dekretuen** argitaralpenarekin:

- [2016ko otsailaren 8ko dekretua](#), eskorta-hegazti ustiapenetako **biosegurtasun-neurri** aplikagarrien eta hegazti-gripearen aurkako prebentzioaren testuinguruko beste hegazti batzuen gainean.
- [2016ko otsailaren 9ko dekretua](#), Frantziako lurraldeko gaixotasunaren (**murrizketa-zona establezimendua**) detekzioaren ondoren hegazti-gripearen kontrako erabakia.

Aurreneko fokua 2015eko **azaroaren 24an berretsi zen: patogenotasun handiko hegazti-gripea (PHHP), H5N1** azpimota, jatorri europarra. **EZ DU ZERIKUSIRIK 90eko hamarkadaren erdialdeko AZPIMOTA ASIARRAREKIN** (2005ean iritsi zen Europara). Hauek izan dira detektaturiko gainerako azpimotak: H5N1, H5N2 eta H5N9.

Informazio interesgarria:

[Frantziako Nekazaritzaren, Nekazaritzako Elikagaien eta Basoaren arloko Ministerioa - 16/03/11 ANSES](#), Elikagai Segurtasunerako Frantziako Agentzia.

[HGren Frantziako fokuari buruzko aurreko albistea](#) - abenduaren 21a, ELIKA

[Espainiak txertoa jarri du mingain urdin gaixotasunaren 8 serotipoaren aurka](#) **[16/02/09](#)**

Mingain urdin gaixotasunaren **8 serotipoaren aurkako derrigorrezko txertaketa** ezarri da

Aragoi, Katalunia eta Nafarroako Foru Erkidegoa autonomia-erkidegoen iparraldeko zenbait albaitaritza-eskualdetan. **Euskal Autonomia Erkidegoan, borondatezko txertaketa ezarri da.**

Frantzian duela gutxi jakinarazitako **8 serotipoen agerraldiek** eragin dute hiru hilabete baino gehiagoko behi eta ardietan **prebentziozko txertaketa** ezartzea; hala ere, ez da inola ere mugatu animalien mugimendua herrialde horietan.

- [Mingain urdin gaixotasunaren agerraldien egoera Frantzian](#) - 2016/02/08

Neurri horiek joan den ostiralean, otsailaren 5ean, sartu ziren indarrean, otsailaren 2ko [AAA/107/2016](#) Aginduaren bidez. Horren bidez, AAA/1424/2015 Agindua aldarazi da. Honako hauek dira aldaketa nagusiak:

1. Baimendu egiten da 8 serotipoaren aurkako **borondatezko txertaketa**, agintaritza eskudunak baimendu ostean, **Frantziako eremu mugatuetan aldi baterako egonaldiak egin eta Espainiara itzuliko diren animalientzat.**
2. Zabaldtu egiten da **1 serotipoaren eremu mugatua**. Halatan, **Extremadurako** Autonomia Erkidegoa erabat da mugatua da 1 serotipoari dagokionez.
3. 7 egunetik **28 egunera zabaldtu da derrigorrezko txertaketa salbuesten duen gehienezko epea**, eremu mugatuaren barruko eremu libreetako animalientzat, eremu mugatuko hiltegi batera eraman behar dituztenean.
4. **Zenbait baldintza ezarri dira**, beste estatu kide batzuetako **eremu mugatuetako animaliak penintsulako eremu libreetara mugitzeko.**

[INFOGRAFIA: MINGAIN URDIN GAIXOTASUNAREN AURREKO NEURRI BERRIEN LABURPENA](#)

Informazio gehiago:

[RASVERen berria mingain urdin gaixotasunari buruz](#) - MAGRAMA

[RASVERen informazioa mingain urdin gaixotasunari buruz](#) - MAGRAMA

[Mingain urdin gaixotasunaren 8 serotipoa](#) **[Frantzian 16/02/05](#)**

2015eko irailaren 11n ANSESen Erreferentziazko Laborategi Nazionalak baieztatu egin zuen **mingain urdin gaixotasunaren 8 serotipoaren lehen kasu bat** agertu zela Frantziako Allier departamenduko artalde batean. **Harrezkero, 158 foku jakinarazi dira guztira Frantzian.**

- [Erasandako eremuen mapa](#) 2016eko otsailaren 4an (alim´agri).

Mingain urdin gaixotasunaren 8 serotipoa ez zegoen Frantzian 2010az geroztik, eta ez da kasurik jakinarazi munduan 2011z geroztik.

Hartutako neurriak

2015eko abenduaren 31n, Frantziako Nekazaritza Ministerioak [2015eko abenduaren 30eko Dekretua](#) argitaratu zuen, [2011ko uztailaren 22ko Dekretuaren](#) arabera murriztutako eremuak aldatzen zituena. 2015eko abenduaren 30eko dekretu horrek eremu metropolitarran mingain urdin gaixotasunaren aurkako neurri teknikoak eta administrazio-neurriak ezartzen ditu.

Hartutako neurrien artean hauek nabarmentzen dira:

- **Animaliak txertatzea:** lehentasuna ematen zaie Europako mugimenduetara bideratutako behiei, ardiei eta ahuntzei, bai eta hirugarren herrialdeetara esportatzekoei ere, gizentzeko nahiz ugaltzeko izan.

Txertaketak honako hauek ditu ardatz:

- o Infektatutako animalia-taldeetako animaliak.
- o Arraza-aukeraketako eskemetan nahasitako animaliak.
- o Esportatzeko merkatuetara bideratutako animaliak, bereziki Espainiara eta Italiara.

Dosien banaketa 6-16 hilabete arteko bularreko animalia kopuruaren arabera egitea erabaki zen; izan ere, aurreko urtean antzeko denbora-tartean atzerrira saldutako animalia gehienen kategoria hori izan zen.

Animalia horiek immunizatze sistema nazionala irailaren 25ean jarri zen abian.

- **Animalia-mugimenduak murriztea**, mugatutako eremuen baitan: 100 km-ko erradioko babes-eremua erasandako ustiategiaren inguruan, eta 50 km-ko monitorizazio-eremu bat.
- **Zaintza irmoagoa ezartzea**, erasandako eremuaren hedadura azkar ebaluatzeke eta sar daitekeen beste serotiporen bat antzemateko.

[Animalia basatien laginak hartzeko gida](#) [16/01/25](#)

"**Ehiza larriko espezien laginak hartzeko gida**" dokumentuaren helburua da azaltzea animalia basatien **zer lagin hartu behar diren eta nola hartu behar diren**, ondoren laborategira bidaltzeko. Gida hori NEIKER-Tecnaliak egin du, ELIKAREN eta hiru foru-aldundien laguntzarekin.

Gainera, **informazio-bideo** bat egin da prestakuntza-ekintzei laguntzeko.

- [Gida eta bideoa](#)

Euskal Herrian, ibilgailuren batek harrapatutako edo ageriko arrazoirik gabe hildako animaliak aztertzen dira, baita gaixo aurkitutako eta sendatzeko zentroetan utzitako animaliak ere. Alabaina, **espezie zinegetikoen kasuan**, ehiztarien laguntza behar-beharrezkoa da, eremu bakoitzeko animalia gehiago aztertu ahal izateko. Tiroz botatutako animalien laginak laborategiko analisiak egiteko erabil daitezke eta, horri esker, beren osasun-egoera zehaztu daiteke eta interes-gune bakoitzean zer patogeno aurki ditzakegun jakin daiteke.

Honako animalia hauek aztertzen dira: **basurdeak, oreinak, orkatzak, erbiak**, hainbat karraskari eta hegazti mota, eta zenbait haragijale (azkonarrak eta azeriak, esaterako). Animalia horiek guztiek besteak beste gaixotasun hauek ote dituzten aztertzen da: behien **tuberkulosia, yersiniosia, hidatidosia, mingain urdina, mukieria eta hazteria**.

Gida eta bideoa ehiza larrian aritzen diren hiru lurralde historikoetako eragileei banatuko zaizkie.

Hegazti-gripearen egungo egoera Frantzian 15/12/21

Iragan den **azaroaren 24an**, Frantziako [*ANSES - Ploufragan*](#) gripearen Erreferentziako Laborategi Nazionalak (LNR) **H5NI oso patogenoa den hegazti-gripearen (IAAP)** andui bat identifikatu zuen. Ordutik hona, **15 foku baieztatu dira Frantziako hego-mendebaldeko 5 eskualde hauetan:**

8 foku Dordoinako eskualdean:

1. **Azaroaren 24an, IAAPren (H5N1)** foku bat aire zabaleko 32 oiolatan.
2. **Azaroaren 28an, IAAP H5en** foku bat 14.000 ahate-haztegi batean.
3. Azaroaren 30ean, **(H5N2) IAAPren** andui bat 1.000 antzarako ustiategi batean.
4. **Abenduaren 4an**, baieztatu zen 1.000 ahatek eta 4.000 oilaskok osaturiko lote batean foku bat aurkitu zela zaintzarako programa nazionalaren barruan. Ekoizpenerako hegaztientzat **oso patogenoa den H5a** ahateei zegozkien laginetan agertu zen .
5. **Abenduaren 7an**, 1.000 ahatek osatutako lote batean **H5 IAAP** hauteman zen.
6. **Abenduaren 7an**, sintoma klinikoaren harira, 630 ahateko lote batean **IAAP** detektatu zen.
7. **Abenduaren 8an, H5N1en** foku bat baieztatu zen 30 ahatetan, antzaratan eta oiolatan.
8. **Abenduaren 14an**, Bosseten, **H5N1** agerraldi bat detektatu zen 1.070 ahatek osatutako lote batean.

Landetan 4 foku hauek baieztatu dira:

1. **Abenduaren 6an, H5 IA** detektatu zen gizontzeko 500 ahatek osatutako lote batean.
2. **Abenduaren 5ean**, Doaziten, pintadak ezohiko eran hiltzen zirela eta (700 pintada hil ziren 4.000ko lote batean), probak egin ziren eta haztegi bat **H5N9** aldagaiaren fokutzat jo zen. Haztegi horretan bertan 8.800 oilo, 4.550 kapoi eta 7.200 pintada daude.
3. **Abenduaren 9an**, Horsarieuxen, **H5N9** anduia detektatu da 4.000 pintada, 12.600 oilasko, 3.500 kapoi eta 960 ahate dituen haztegi batean.
4. **Abenduaren 14an**, Doaziten, **H5N2** agerraldi bat detektatu zen 1.700 ahateko lote batean.

Haute-Viennen, abenduaren 9an, agerraldi bakarra egiaztatu zen Les Billangueseko hegazti-haztegi batean (ez da hegazti mota adierazi). Aurkitutako anduia **eskortako hegaztietan oso patogenoa den H5N1** izeneko da.

Gersen, H5N2 agerraldi bat detektatu da 8.300 ahateko haztegi batean, Macieten.

Pirinio Atlantikoetan, Arrosesen, **H5N9** agerraldi bat baieztatu da 1.500 ahateko haztegi batean.

Kontuan hartu behar da, Ansesen arabera, **identifikatutako anduiek jatorri europarra dutela. Ez dago Asiako anduirik, eta ez da azken urteetan detektatu zen Asiako anduia bezalakoa.**

Patogenotasuna gizakiontzat

[ANSES](#)en (Elikagaien Segurtasuneko eta Ingurumeneko Frantziako Agentzia) esanetan, detektatu den anduia eskortako hegaztientzat oso patogenoa izateak **ez du ezinbestean esan nahi gizakiontzat ere oso patogenoa denik**. Bestalde, 2014 bukaeran eta 2015 hasieran, Europako eskortako hegaztientzat oso patogenoa zen andui bat detektatu zen Europar Batasuneko hainbat estatu kideetan. Kasu hartan, ondorioztatu zen anduia ez zela gizakiontzat arriskutsua.

ECDCren ebaluazio azkarraren txostena

Iragan den abenduaren 4an, **Gaixotasunak Prebenitzeko eta Kontrolatzeko Europako Zentroak (ECDC) egoerari buruzko txosten bat argitaratu zuen**. Bertan, honako hau **ondorioztatzen zen** agerraldietan atzemandako birusari buruz:

- **Frantzian detektatu den IAAP (H5N1) birusak ez du loturarik munduko beste toki batzuetan dauden A (H5N1) birusekin**; dirudenez, Europan aurki daitekeen IABP (patogenotasun eskaseko hegazti-gripea) birus baten ondorengoa da.
- **Gizakien arteko kasurik ez da jakinarazi** Frantzian detektatu den IAAP (H5N1) birusari dagokionez.
- **Birusa elikagaien bidez transmititzeko arriskua**, esaterako, arraultzen edo haragiaren kontsumoaren bitartez, **bereziki baxutzat jotzen da**.
- **Gaixo zeuden hegaztiekin edo hegaztien hiltzekin kontaktuan egon diren pertsonak** (adibidez abeltzainak, al baitariak eta animalien hiltetan parte hartu duten langileak) **kontagiatzeko arrisku potentziala dutela uste da**. Hori dela eta, birusarekin kontaktuan egoteko arriskua duten pertsona guztiak **babes-ekipoak** erabili beharko dituzte.
- **Norbait IAAP (H5N1) edo A (H5N2) birusarekin kontaktuan egon bada gutxienez 10 egunez kontrolatu beharko da**.
- Animalien osasunaren eta osasun publikoaren arduradunak prest egon behar dira Europako beste **herrialde batzuetan IAAP (H5N1) edo A (H5N2) birusa agertzeko arriskuaren aurrean; hala ere, arrisku hori baxutzat jotzen da**.

Informazio gehiago:

[Frantziako Errepublikako Nekazaritza, Elikadura eta Basogintza Ministerioaren webgunea](#)
[Frantziako fokuen mapa](#) 2015eko azarotik 2015eko abenduaren 10era - MAGRAMA
[Lehenengo fokuari buruzko albistea](#) 2015eko azaroaren 24a - ELIKA

[IA H5N1aren fokua Frantzian 15/11/26](#)

Frantziako agintariak jakinarazi dute **Frantzia** hego-mendebaldean **patogenotasun altuko H5N1 hegazti-gripearen foku bat** aurkitu dutela.

Foku hau da **herrialdean azken zortzi urteetan agertu den lehena**, eta azaroaren 24an baieztatu zuen Arriskuak Ebaluatzeko Agentzia Nazionalak (ANSES), hegaztiak ezohiko eran hiltzen ari zirela

ikusteak sortu zituen susmoen harira.

H5N1 birusaren aldaera bat da eta patogenotasun maila altua du hegaztientzat. Oraindik ere sekuentziazioa aztertzen ari badira ere, badirudi aurrez Europan detektatutako birus mota bat dela, nahiz eta garai hartan patogenotasun maila baxua zuen.

H5N1 birusaren kronologia Europan, 2015. urtean:

2015ean, Europan, herrialde hauetan detektatu da H5N1 birusa: Bulgaria eta Errumania. Urtarrilean, otsailean eta martxoan Bulgariak baieztatu zuen H5N1 azpimota agertu zela eskortako hegaztietan eta baso-hegaztietan. Martxoan, Errumaniak jakinarazi zuen foku bat agertu zela eskortako hegaztietan.

Ezaritako neurriak:

Frantzian foku berria detektatu denez, 2005/94/EC Zuzentarauan aurreikusitako neurriak ezarri dira, besteak beste **3 kilometroko babes-eremua eta 10 kilometroko zaintza-eremua** ezartzea.

Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak ([MAGRAMA](#)) gogorarazi du beharrezkoa dela biosegurtasun neurriak indartzea hegaztien ustategietan, bereziki baso-hegaztiekin kontaktua saihestera bideraturiko neurriei dagokienez.

[Fokuaren kokalekua](#) - MAGRAMAren irudia

[Trikina atzemateko xedapen berriak 15/08/31](#)

Europako Batzordeak **2015/1375 Araudia** argitaratu du, haragiko trikina kontrolatzeari buruzkoa, 2075/2005 Araudia indargabetzen eta honako hau ezartzen duena:

Txerri-haragia post mortem ikuskatzea hiltegian

- **Hazteko txerri-eme eta ordotsen kanal guztiak aztertuko dira, edo, gutxienez, urte bakoitzean ustiategi bakoitzetik hiltzera igortzen diren animalien kanalen % 10**, haien estabulazio-baldintza kontrolatuak ofizialki aitortu direnean.
- Sistematikoki aztertuko dira **estabulazio-baldintza kontrolatuak betetzearen aitorpen ofiziala lortu ez duten ustategietako kanal guztiak.**
- **Kanal bakoitzaren lagin bat** hartuko da.

Salbuespenak

- Ez da trikinen presentziarik ikertu beharko **5 astetik beherako** etxeko bularreko txerrien kanaletan eta haragian.
- Ez da trikinen presentziarik ikertu beharko Araudiaren II. eranskinean deskribatutako metodoen arabera **izoztu den txerri-haragian**. Haragia baldintza jakin batzuetan izozteak parasito guztiak hil ditzake, nahiz eta *Trichinellaren* espezie batzuek (ehizakiei eta zaldiei eragiten dietenak) erresistentzia izan izoztea tenperatura- eta denbora-konbinazio gomendatuei jarraikiz egiten denean.

- Trikinak aztertzetik salbuets daitezke **ofizialki aitortutako ustiategi bateko txerrien kanalak** (Araudiaren IV. eranskinarekin bat etorritik), betiere Estatu kidean trikinen infestazio autoktonorik atzeman ez bada edo eginiko azterketa jarraituen historialak gutxienez % 95 bermatzen badu trikinen prebalentzia ez dela batetik gorakoa milioi batean.

Trikina atzemateko metodoa

- Laginak **agintaritza eskudunak hautatutako laborategian** aztertuko dira.
- Erreferentziazko atzemate-metodoa **lagin kolektiboak irabiagailu magnetiko batekin digeritzea** da (Araudiaren I. eranskinaren I. atalean deskribatzen denarekin bat etorritik).
- Halaber, **pareko beste atzemate-metodo batzuk** ere onartzen dira (Araudiaren I. eranskinaren II. kapituluaren ageri direnetako batzuk).

Zaldi- eta basurde-haragia ikuskatzea

- Zaldien, basurdeen eta hazkuntzarako beste animalia-espezie batzuen zein animalia basatien kanalak trikinekin infesta badaitezke, **laginketa sistematikoak egingo dira** hiltegietan edo ehiza-haragia manipulatu den establezimenduetan, *post mortem* azterlanen esparruan.
- **Kanal bakoitzaren lagina hartuko da**, eta agintaritza eskudunak izendatutako laborategian aztertu, bat etorritik Araudiaren I. eta III. eranskinetan ezarritakoarekin.

Trikinari buruzko informazio interesgarria:

1. [2015/1375 Araudia](#)
2. [Zientzia-iritzia: txerri-haragia ikuskatzean aintzat hartu beharreko osasun publikorako arriskuak](#) - EFSA, 2011.
3. [Etxeko txerrien artean trikina atzemateko metodo berria, EBko erreferentziazko laborategiak balioztatutakoa](#) - EB, 2010
4. [Fitxa teknikoa: trichinelosia](#) - ELIKA, 2012